



|                      |                                                                    |
|----------------------|--------------------------------------------------------------------|
| UNITATE SUSTATZAILEA | EUSKARA ETA HEZKUNTZA                                              |
| XEDEA                | EBAZPENA: LAN-ARLOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK |
| TITULARRA            | TOLOSAKO UDALA                                                     |

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela. Ondoren, bi aldaketa izan ditu: bata, GAO, 68. zk., 2023-01-26an argitaratua, eta bestea, GAO, 89. zk., 2024-05-09an argitaratua.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerro hau dagoela: Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023-02-01).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 6.000 euroko zenbatekoa finkatu dela, 2024ko udal-aurrekontuaren 0900.481.02.335.10 partidan.

LAUGARRENA.- Tolosako Udalak, Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuaren 2024/1389 Dekretuaren bidez, Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak onartu zituela, lehia bidezko konkurrentzia modalitatekoak, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirela (123. zk., 2024-06-26), zehazki honako hauek:

|                    |                                                                                                       |
|--------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Deialdiaren izena: | Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak.                                             |
| Helburua:          | Xedea da Tolosako enpresei dirulaguntzak ematea, lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko helburuz. |

BOSGARRENA.- Behin eskaerak aurkezteko epea igarota, ez dela batere eskaerarik jaso.

SEIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Sailak proposamena helarazi diola Balorazio Batzordeari, deialdia hutsik deklaratu dezan. Orobat, proposatu du deialdian soberan geratu diren 6.000 euroak Establezimendu komertzialetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntzetara bideratzea, deialdi horretan sor daitezkeen beharrei erantzuteko. Hori aurreikusia dago deialdiaren bigarren artikuluan.

ZAZPIGARRENA.- Balorazio Batzordeak txostena igorri duela.

ESKU00fba545-80d8-48ec-b512-8f114eb315e8



TOLOSAKO  
UDALA

2024DO100004

ZORTZIGARRENA.- Kontuhartzailetzako teknikariak txostena igorri duela.

## KONTUAN HARTURIK

BAKARRA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola onartutako aurrekontuaren arabera kudeaketa ekonomikoa garatzea, bere eskumeneko mugen barruan gastuak xedatzea.

Halaber, 2023/1718 Alkatetza Dekretuaren bidez, eskumen hori arloko zinegotzi delegatuari eskuordetua zaio.

Aurreko guztia aintzat harturik, zinegotzi delegatu honek honako hau

## EBAZTEN DU

**LEHENA.-** Hutsik deklaratzeko Lan-arloan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia.

**BIGARRENA.-** Deialdiaren 2. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz, deialdian soberan geratu diren 6.000 euroak Establezimendu komertzialetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko dirulaguntzetara bideratzea, deialdi horretan sor daitezkeen beharrei erantzuteko.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekursoa aurkez dezake Alkatzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekursoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekursoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

ESKU00fba545-80d8-48ec-b512-8f114eb315e8



TOLOSAKO  
UDALA

2024DO100004

**Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua,  
Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Garbiñe Marzol Ormazabal

Begoña Garmendia Vazquez



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024DO100004-Lan-arloa ebazpena/Lan-arloa ebazpena (TOLOSAKO UDALA)